

## 7 UDAL ADMINISTRAZIOA

### IBARRAKO UDALA

#### **Etxebizitza babestuen erregelamendua. Behin betiko onespena.**

---

### IBARRAKO UDALA

#### Iragarkia

Jendaurrean jarrita egoteko arauzko epea inolako kexarik eta oharrik aurkeztu gabe igaro ondoren, 2007ko maiatzaren 23an udalbatzarrak egindako ohiko osoko bilkuran hartutako hasierako erabakia indarrean jarri da eta behin betiko bihurtu da. Erabaki horren bidez Ibarako babespeko etxebizitzak arautzen dituen udal Erregelamendua onetsi zen. Jarraian araudiaren testu osoa argitaratu dugu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan xedatutakoa bete dadin.

Ibarra, 2007ko uztailaren 25a.—Consuelo Romeo Aya, Alkatea.

(1271) (8813)

### IBARRAKO BABESPEKO ETXEBIZITZEN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

#### 1. ARRAZOIAK AZALTZEA

Gizarte Zerbitzuetako Sistema Publikoak, besteak beste, ardura hau daukate, familiek eta norbanakoek daukaten elkarbizitza beharrei egoki erantzutea, beti ere alojamendu, jantzi, elikadura, zaintza, afektu, e.a.ko lehen premiak estaltzeari buruz. Gizarte Zerbitzuek behar horri erantzuten diote, Alojamentu eta Elkarbizitzako Oinarrizko Prestazioaren bitartez.

Bestalde, gizarteko beharrei eta eskaerei eman beharreko erantzunak herritarren gertu-gertu jarri behar dira, haren komunitatean, eta eremu horretan eraman behar da esku-hartze politika, hau da, lojamendu normalizatuko aukerak, jatorrizko komunitatetik deslotu barik. Babesturiko Etxebizitzak pertsona horientzako lojamendu alternatiboa dira, bitartekoa behar den horri egokitzeko bidetik eta ez alderantziz, beharra bitartekoari.

Babesturiko Etxebizitzak lojamenduak dira, non-eta independentzia pertsonal dezente handia duten pertsona helduen talde batek aukeratzen duen erregimen autonomoan bizitzea, nahiz eta erakunde publiko edo pribatu baten tutoretzapean eta laguntza teknikoaz izan.

Ekipamendu horrek, beste ezerk ez bezala, intimitatea errespetatzen du eta norbanakoen ahalmenak sustatzen ditu, eta beste aukera batzuk baino hobeto bermatzen dute haren elkarbizitza pertsonalaren eta gizarteratzearen normalizazioa.

Etxebizitza babestu hau, kanpoko laguntzarik behar ez duten egoera fisiko eta psikiko batetan egonik, beraien etxebizitzan mantentzeko zailtasunak dituzten (egoera txarrean dagoelako edo elkarbizitza arazoengatik), edo etxebizitza utzi beharrean aurkitzen diren edo baliabide ekonomiko, familiar edo/eta sozialik ez duten hirugarren adineko lagunentzat osatzen da.

Programa honetako onuradunaren perfila honela definitu dezakegu: Beraien egoera fisiko eta psikikoarengatik kanpoko laguntzarik behar ez duten edadetuak, beraien etxebizitzan mantentzeko

zailtasunak badituzte (egoera txarrean dagoelako edo elkarbizitza arazoengatik), edo etxebizitza utzi beharrean aurkitzen badira edo baliabide ekonomiko, familiar edo/eta sozialik ez badituzte.

Gizarte Zerbitzuetako gaitan udalak dituen eskumenen arabera eta bereziki hirugarren adineko pertsonen laguntzeko direnak, tutoretzapeko etxebizitza jarri du abian Zegamako Udalak pertsona nagusientzat; eta udalari dagokio hura antolatu, kudeatu eta administratzea.

## I. TITULUA

### BABESTURIKO ETXEBIZITZAREN ANTOLAMENDUARI BURUZ

#### I. KAPITULUA. -XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua. Definizioa.

1. Babesturiko etxebizitzak Udal Sareko ekipamendu batzuk dira, Oinarrizko Lojamendu Prestazioa eraginkor egiteko helburua dutenak; eta baliabide espezifikoak dira, hirugarren adineko biztanleen bizi kalitatea sustatzeko Zerbitzu hauek ezarritako laguntza ibilbidean.

2. Kanpoko laguntzarik behar ez duen egoera fisiko eta psikiko batean egonik, etxebizitzan mantentzeko zailtasunak dituzten (egoera txarrean dagoelako edo elkarbizitza arazoengatik), edo etxebizitza utzi beharrean aurkitzen diren edo baliabide ekonomiko, familiar edo/eta sozialik ez duten pertsona nagusientzat jarri ohi dira etxebizitza babestuak.

##### 2. artikulua. Xedea eta helburuak.

Hauek dira etxebizitza anitzen helburuak:

— Inguru komunitario egoki batean bizitzeko aukera ematea pertsona hauei eta bere ohiko bizitokiarekiko hobekuntza izatea.

— Autonomia sustatzea beren beharrei egokitutako harrera baten bidez.

— Pixkanakako hondatzea ekidin eta atzeratzea jarraipen egoki baten bidez.

— Harreman sozial eta elkarbizitzakoak sustatzea.

— Bizi kalitatea hobetzea Gizarte Zerbitzuetakoek kasu bakoitzean egoki iritzitako esku-hartze programen bidez.

##### 3. artikulua. Erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuak.

Etxebizitza hauetako erabiltzaileek zerbitzu hauek izango dituzte:

— Ostatua, eremu propio eta komunekin.

— Eguneroko otorduak.

— Etxearen garbiketan laguntza, arropa garbitu eta plantxatzea.

— Astelehenetik larunbatera arteko laguntza, ezartzen diren orduekin.

— Laguntza eguneroko zereginak egiten (Etxez-etxeko laguntza, aurretik eskatuta eta balorazio teknikoa eginda).

— Bizitzako plan pertsonala antolatzea eta egikaritzea.

— Erabiltzaileak artatzea.

— Arazo eta kexak direnean bitartekaritza.

— Automia mailan ematen diren aldaketak ikuskatzea eta behar dituzten laguntza eta zerbitzuak begiratzea.

— Tele-alarma.

## II. KAPITULUA. -GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZA ORGANUEI BURUZ

### 4. artikulua. Ibarako udalaren ardura.

Ibarako Udala, Gizarte Zerbitzuetako sailaren bitartez, zerbitzuaren gestioaz, administrazioaz eta ongi jarduteaz arduratuko da, zer horretan tutoretzako ahalmena erabiliz. Ardura hori honela gauzatuko da, etxebizitza aldizka ikuskatuz eta gainbegiratze teknikoak ginez.

## II. TITULUA

### ARAUDI OROKORRA

#### I. KAPITULUA. ERABILTZAILEEI BURUZ

##### 5. artikulua. Sartzeko baldintzak.

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eduki ahal izango dute babesturiko etxebizitzaren erabiliztaile izatera:

1.- 65 urtez gorakoa izatea. 65 urtez beherako eskatzaileek plaza bat eskuratu ahal izango dute, baldin eta 60 urte edo gehiagoko beste eskatzaile batekin ezkonkide-tza edo antzeko harremana, edo bigarren gradura bitarteko ahaidetasuna badu.

65 urte baino gehiagokoak eskubidea galduko balu, nahiz eta lehenago eskubide hori izan, berarekin batera sartutako lagunak, laguna izateagatik soilik sartua, etxebizitza utzi beharko du hiru hilabeteko epean, eskubidea galdu zenetik kontatzen hasita. Halere, gerta daiteke, eskubide hori berak berea izatea.

Halere, adinaren muga ez da izango erabakiorra udaleko Gizarte zerbitzuetakoak nahiz balorazio teknikoak horrela ikusten badute.

2. Babespeko etxebizitzan sartzeko lehentasun hauek hartuko dira kontuan:

- a) Eskaera aurkeztu aurreko 2 urteetan Ibarren erroldaturik egotea.
- b) Familia birtaldekatze arazoak dituztenak edo izaera sozialekoak eta udaleko gizarte zerbitzuetakoek baloratuko dituztenak.
- c) Eskaera aurreko 24 hilabeteetan Gipuzkoako edozein herritan erroldatutakoak.

3. Gaixotasun infekzio-kutsagarriak ez edukitzea.

4. Eguneroko aktibitateak inoren laguntza barik egiteko gai den egoera fisiko eta psikikoa edukitzea (dagokion menpekotasun maila).

Erabiliztailearen ezintasun mailaren arabera, Udal Gobernu Batzordeak pertsona horrek plaza utzi beharra erabaki ahal izango du.

5. Elkarbizitza normalizatua ahalbideratzen duten jarrera sozial eta ohitura pertsonal eta garbitasunari dagozkionak izatea.

Goian aipatzen diren baldintza guztiak betetzen ez direnean, Udaleko Gobernu Batzordeak hartuko du akordioa, Gizarte Zerbitzuetako batzordearen txostena eman ondoren.

## II. KAPITULUA. -ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

### 6. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Erabiltzaileek ahal den askatasun handiena izango dute, araudi honek eta elkarbizitza arauak ezartzen dituzten mugen barnean. Hauek egiteko eskubidea ere izango dute:

- a) Etxebizitza erabiltzeko.
- b) Eguneroko lanetan behar duten laguntza profesionala jasotzeko.
- c) Bere etxebizitzan bisitak jasotzeko, ezartzen diren orduetan.
- d) Urtean gehienez 45 eguneko oporrak edukitzeko.

Oporraldi edo ez egoteak ondorio ekonomiko hauek izango dituzte:

— Ohiko ekarpena baino %75 gutxiago etxebizitzatik kanpo dauden egunak 7 egunetik aurrera baldin badira, eta eragina izango du zortzigarren egunetik aurrera.

— 45. egunetik aurrera, plaza kostuaren %100 ordaindu beharko du. Kasu horietan, Gizarte Zerbitzuko Batzordeak balorazioa egin eta Gobernu Batzordeari plazaren okupazioaren proposamena luzatuko dio, baita ere erabaki ahal izango du erabiltzaile horrek plaza utzi behar duen edo ez.

- e) Ezartzen diren ordezkari organoen bidez bizitza komunitarioaren funtzionamenduan parte hartzeko ordezkaria aukeratzeko.
- f) Beharrezkoa balitz, udal gizarte langileak behar dituzten gizarte zerbitzu eta prestazioak bideratuko dizkie erabiltzaileei.
- g) Izendatzen zaion plaza hartzeko, aldaezin izaerarik izango ez duena.
- h) Janarirako.

Janariak eta jatorduak bere garaian ezartzen direnak izango dira. Ahalegina egingo da, medikuak esandakoak jarraituz, erabiltzaileen adin eta egoera fisikoa kontuan izanik, menuak egokienak izan daitezten.

- i) Nahi dutenean etxebizitzatik irteteko, baina nora doazen eta gutxi gora behera kanpoan zenbat denbora emango duten adieraziko dute. Familiatik kanpo doazenean zentroko arduradunari honen berri emango zaio 48 ordu lehenago.
- j) Lehetasunez ezkontza harremana edo antzekoa dutenek logela bera erabiltzeko.
- k) Bere gelako eta ate nagusiko giltza edukitzeko, bakoitzak berearen printzipioa betetzearren.
- l) Edozein arrazoiengatik, erabiltzailearen menpekotasunak Etxebizitzan bizitzen jarraitzen utziko ez balio, Zegamako Udalak konpromisoa hartzen du erabiltzaileen egoera pertsona nagusientzako Egoitza sare normalizatuan bermatzeko.

### 7. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Betebehar hauek izango dituzte lojamendu babestuko erabiltzaileek:

- a) Barne araudian ezarritako elkarbizitza arauak beteko dituzte erabiltzaileek, eta elkarren arteko errespetua eta tolerantzia oinarritutako jarraera agertuz, behar bezala portatuko dira eta elkarri lagunduko diote.II Eranskinean jasotzen diren arauak bete beharko dituzte.
- b) Etxebizitza eta hango ekipamendua zainduko dute.
- c) Zentroko arduradunari jakinarazi beharko diote, hilabete lehenago, etxebizitza uzteko nahia edo beharra.

- d) Bere egonaldirako ezarria izan zaion diru kopurua garaiz ordaintzea. Hori dela eta, erabiltzaileek diru sarrerei buruz izaten duten edozein aldaketa jakinarazi behar dute, egoera ekonomiko berriaren aldaketa izan eta 15 eguneko gehienezko epean, tasa hori beste egoera horretara egokitzearren.
- e) Ahal duen neurrian etxeko lanetan lagundu, etxebizitzaren funtzionamendu onerako, eta instalazioak egoera onean mantenduko ditu, eta ematen zaizkion altzari, tresna eta arropak bereak balitu bezala zainduko ditu.
- f) Bere logelara sartze utzi beharko dio etxez-etxeko langileari eta udaleko gizarte langileari.

8. artikulua. Erabiltzaile izateari uztea.

Arrazoi hauengatik galduko da Etxebizitza Babestuaren erabiltzaile izaera:

- a) Borondatez uko egin diolako. Inoiz ez da ustezkoa izango, baizik eta espresuki eta zalantzarik gabe agertu behar da.
- b) Zigor baten ondorioz bidali dutelako.
- c) Hil egin delako.
- d) Arrazoi justifikaturik gabe, etxebizitzatik kanpo egon delako, jarraian edo tarteka, urteko oporraldietarako 45 egunez gain eta Batzordearen baimenaren gainetik.
- e) Hileroko kuota ekonomikoak ordaindu ez dituelako.
- f) Bere sarrera eragin zuten egoerak bertan bera geratu edo aldatu direlako.

### III. KAPITULUA. HUTSEGITE ETA ZIGORRAK

9. artikulua. Zigor araudia.

Etxebizitzako elkarbizitza nahita oztopatzen badute erabiltzaileek, gainontzeko erabiltzaileen edo pertsonalaren eskubideak errespetatzen ez badituzte edo etxebizitzara sartzeko eskaera egiten denean, nahita, gezurrezko datuak ematen badituzte, zigortu egingo dira.

Oro har, Araudi honetako edozein arau ez betetzea falta modura hartuko da, eta hauek arinak, larriak edo oso larriak izango dira. Araudia betetzen ez duten erabiltzaileak denboraldi baterako bidaltzea ere jasotzen dute zigorrek.

10. artikulua. Ardurak eta hutsegiteak.

1. Etxebizitzako erabiltzaileak izango dira egitez edo ez egitez instalazioetan sortzen diren kalteen erantzule, bai eta gertatzen diren ordenaren nahasmenduena ere.

Horretarako, oso larriak, larriak eta arinak izango dira hutsegiteak:

2. Hutsegite oso larriak:

- a) Hiru hutsegite larri edo gehiago egitea behin eta berriro.
- b) Etxebizitzako erabiltzaileei edo gainontzeko pertsonalari eraso fisikoa edo tratu txarrak eragitea.
- c) Erabiltzaile izaerari dagokionean, eta onura eskuratzeko, gezurrezko deklarazioak ematea edo ezkutatzea, edo zehatzak ez diren datuak edo datu garrantzitsuak ematea.
- d) Etxebizitzako ondasunetan kalte garrantzitsuak edo elkarbizitzan kalte nabariak eragitea.
- e) Beste egoilarren logelan baimenik gabe sartzea.

3. Hutsegite larriak:

- a) Hiru falta arin edo gehiago egitea.
- b) Instalazioko, pertsonalaren edo edozein erabiltzaileraren ondasunak edo edozein gauza lapurtzea.
- c) Kuotaren ordainketa arrazoirik gabe atzeratzea.
- d) Etxebizitza erabiltzea erabiltzaileen familiarterako edo/eta lagunen elkarbizitzarako, denboraldi baterako bada ere baimenik izan gabe.

#### 4. Hutsegite arinak:

- a) Errespetu falta hutsa. Honela adieraz daiteke: Beste onuradun batekiko edo zerbitzuari lotutako pertsonalarekiko tratu desagokoa, jarrera edo hitz deskontsideratu edo desagokiak.
- b) Etxebizitzako altzariak, tresneriak, gauzak edo instalazioak arretarik gabe erabiltzea, pertsonaren adin edo egoera fisikoaren ondorio izan ez daitezkeenean.

#### 11. artikulua. Zigorrak.

Aurrez klasifikatutako hutsegiteren bat egiten duten erabiltzaileei zigor hauek jarriko zaizkie:

Hutsegite oso larriak:

— Etxebizitzatik bidaltzea aldi batez, hilabete eta sei hilabete bitartean, eta kasu batzuetan behin betiko bidali daiteke.

Hutsegite larriak:

— Bidaliko dutela ohartaraztea.

— Hiru hilabete baino luzeago izango ez den denboraldirako, aldi batez bidaltzea.

Hutsegite arinak:

— Hitzez edo idatziz ohartaraztea.

#### 12. artikulua. Preskripzioa.

Falta arinek bi hilabetetara galduko dute indarra, larriek lautara eta oso larriek urtebetara, baldin eta epe horietan interesatuari espedientearen bideratzea jakinarazi ez bazaio edo, falta arinen kasuan, zigorrik ezarri ez bazaie.

#### 13. artikulua. Zigor prozedura.

1. Zentroko arduradunak erabakiko ditu hutsegite arinak.
2. Hutsegite larriak eta oso larriak erabakitzeko prozedura hau jarraituko da:
  - a) Zigor prozedura hastea udalak edo alde batek eskatuta, udalak izendatuko du bideratzailea eta idazkaria prozedura bideratzeko.
  - b) Bideratzaileak, egoki irizitako frogak bilduko ditu eta erabaki horren proposamena egiteaz arduratuko da. Bertan jasoko dira hutsegitea egin duena errudun jotzeko zioak eta zigor proposamena. 15 eguneko entzunaldia emango zaio.
  - c) Frogak eta alegazioak aztertuta, Gobernu Batzordeak udaleko Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak erabakitakoaren arabera, erabakia hartuko du.
  - d) Interesdunak errekurtsua jarri ahalko du.

### III. TITULUA

#### ERREGIMEN EKONOMIKOA

14. artikulua. Zerbitzuaren kostua.

Ibarrako udalak zehaztuko du ordenantza fiskalaren onarpenarekin, plaza bakoitzaren kostua.

15. artikulua. Zerbitzuaren finantziazioa.

Zerbitzuaren urteko finantziazioa baliabide hauekin egingo da:

- a) Erabiltzailearen ekarpena.
- b) Ibarrako udalaren ekarpena.
- c) Erabiltzailearen jatorrizko udalaren ekarpena.

Tasak udalak onartuko ditu dagokion ordenantza fiskalaren bidez.

16. artikulua. Erabiltzailearen ekarpena.

1. Erabiltzaileak bere diru-sarrera eta ondarearekin zerbitzua finantzatuko du. Horretarako diru-sarrera guztien ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eta baita ondasun higikor nahiz higiezinaren zinpeko aitortpena.
2. Erabiltzaileak eta berarekin doazenez ondasun higikorak badituzte, zerbitzua ordaintzeko utzi beharko dute, libreki erabiltzeko kopurua izen ezik, Erregelamendu honen 18-2 artikulua ezarritakoari jarraiki.
3. Tarifa bere osotasunean likidatuko da, etxebizitza hilean zenbat egunetan erabili duen kontuan izan gabe, araudi honek aurreikusitako kasuetan izan ezik.
4. alta berria edo heriotzagatiko baja denean, erregistroan izen emanda egon den egunei dagokion kuota ezarriko zaio.
5. alta ematen duten pertsonak, inprimaki guztiak betetzeaz gain, dagokion hilabetearen zatia ordaindu beharko dute, eta aurrerantzean izaera orokorreko araudia ezarriko zaie.

17. artikulua. Udalak ezarritako kuota erabiltzaileak ezin ordaindu duenean.

1. Eskatzailearen eta familia unitateko kideen (ezkontidea, aurreko ahaide nahiz ondorengo, senide) egora ekonomikoa dela eta, kuota ezin ordaindu direnean, udalaren laguntza eska daiteke. Horretarako agiri hauek aurkeztu behar dira:
  - a) Eskaera. Bertan adieraziko dira kuota ezin ordaindu izatearen arrazoiak.
  - b) Familia unitateko kideen, erabiltzailearekin batera etxebizitzan izango direnen diru-sarreraren ziurtagiriak.
  - c) Etxebizitzan erabiltzailearekin batera izango direnen diru-sarreraren ziurtagiria (soldata, pentsioa, lamina, epe finkoa).
  - d) Azken errenta aitortpenaren fotokopia edo hau ez bada, ogasunaren ziurtagiria familia unitateko kideak aitortzera behartuta ez daudela dioena.
  - e) Foru Ogasunaren Ondasun Ziurtagiria, azken 5 urtetakoa eta familia unitateko kideena, erabiltzailearekin batera etxebizitzan izango direnena.
  - f) Udalak egoki jotako beste zernahi agiri.

2. Nahiko baliabide ekonomiko ez duten familia unitateko erabiltzaileak, eta horren ondorioz, kuota osoa ordaintzen ez dutenak, beharturik egongo dira zorra errekonozitzeko agiri bat sinatzera. Ibarako Udalarekin erabiltzailearen erantzun behar ekonomikoak jasoko ditu agiri horrek. Agiri horretan, sinatzean zein ondare duen agertuko du erabiltzaileak, eta orain duen ondarea eta geroago izan ditzakeen gehikuntzak konprometituko ditu, aitortutako zorra ordaintzeko.

3. Erabiltzaileak baja hartu ostean, sortu den zorra kobratuko dio Zegamako Udalak, zorrean duen zenbatekoa ekarriz haren finantza kontuetatik, halakorik izanez gero.

4. Ondasun higiezinik izanez gero, zorra kitatu ahal izango dute haren oinordekoek, zenbatekoa ordainduta. Hala egin ezean, Udalak bere eskubidea erabiliko du ondasun horretan, zor errekonozimenduan oinarriturik, judizioz dagokion hitzetan eta prozeduran.

5. diru-sarrera nahiz ondarean izandako aldaketa oro 15 egun naturaleko epean gizarte Zerbitzuetakoei jakinarazi behar zaie, egoera berriro aztertzeko. Urtero berrikusiko da egoera ekonomikoa.

18. artikulua. Udalaren diru-laguntza etxebizitza anitza ordaindu ahal izateko.

1. udalaren diru ekarpena hau izango da: Ostatu gastuari erabiltzaileak berak libreki erabiltzeko duen kopurua kenduta geratzen dena.

2. Libreki erabiltzeko diru kopurutzat jotzen da indarrean dagoen Profesio arteko soldataren %75, familia unitateko kideak bat direnean. Bi balira, kopuruari %30 gehituko zaio. Hirugarren kideagatik, %9 erantsiko da. Laugarren kideagatik %7,7 erantsiko da.

3. Hileko egonaldiaren kostua, Ibaratik kanpoko udalerrietatik datozenen kasuan, erabiltzailearen ekarpenaren bidez eta jatorrizko udalaren ekarpenaren bidez egingo da, azken honek ordainduko duelarik diferentzia.

19. artikulua. Tasak.

1. Ibarako Udaleko Babesturiko Etxebizitzan egotearen tasa urtero finkatuko da, ordenantza fiskalaren bidez.

2. Herritik kanpokoek plaza kostuaren %100 ordaindu beharko dute, Ibarako Udalari inolako gasturik suposatu gabe.

20. artikulua. Ordainketaren arduradunak.

Aurreko artikulua aplikatuz ateratzen diren kopuruak ordaintzeko obligazioa izango dute, egonaldien truke edo, hala badagokie, plaza erreserben truke, erabiltzaileek eurek eta, izaera subsidiarioz, indarrean dagoen legeriak aipatzen dituzten pertsonak.

21. artikulua. Hobari kalkulua eta ordaintzeko modua.

1. Ibarako Udalari egokituko zaizkio, batetik, aplikagarri diren hobariak zehaztu eta kalkulatzea eta, bestetik, aplikazioaren ondorioz jartzen diren erreklamazioak erabakitzea.

2. Erabiltzaileak ordaindu beharreko tasaren bukaerako kopurua zehaztu eta gero, kopuru horren berri emango zaio eta hamar egun naturaleko epea izango du erreklamazioa aurkezteko.

3. Hileko kuota hil horren 15 baino lehen ordaindu beharko da eta kontu korrante bat eman beharko da dirua kobratu ahal izateko. Ordaintzen ez diren kuotak premiamendu bidez kobratuko dira, %20ko errekarquarekin.



22. artikulua. Ez ordaintzea.

Ordenantza fiskalean agertzen diren tasen trukeko zorrak premiamenduzko prozedura administratiboaren bidez eskatuko dira, tasa sortzen den egunetik bi hil igarotzen direnean.

Aldi hori amaitutakoan, premiamendu bidez kobratuko du tasa udal diru-bilketak, eta hartarako, zordunen zerrenda eta aurreko paragrafoan aurreikusten diren gorabeheren justifikagarriak erantsiko dituzte.

#### IV. TITULUA

##### ONARTZEKO PROZEDURA

23. artikulua. Eskabidea.

1. Etxebizitza babestua erabiltzeko izangaiak aukeratzeko prozedura interesdunaren eskabidearekin hasiko da, haren esku jarritako eredu normalizatuaren bidez, eta atal bat izango du, eskatzaileak zuzeneko seniderik ba ote duen edo ez jakiteko (ezkontidea, aurrekorik eta ondorengorik zuzenean) eta, hala badagokio, horien identifikazio datuak.

2. Udal Gizarte Zerbitzuan aurkeztuko da eskabidea, eta Zegamako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuari zuzenduko zaio.

24. artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerarekin batera, nahitaez, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

— Interesatuak behar bezala sinatutako eskaera inprimakia.

— Eskatzailearen NAREN fotokopia.

— Gizarte Segurantzako Kartilaren fotokopia.

— Diru sarrera eta Ondasunen Adierazpena, eta horri erantsiko zaizkio:

\* Aribideko urtealdian jasotako pentsioa(k).

\* Kapital higiezinaren (alokairuak,) edo/eta higigarrien (aurreko urtealdiko interesen laburpena) etekinak.

\* Hala izanez gero, azken Errentaren Aitorpena. Edo hura izan ezean ogasunaren ziurtagiria aitorle zerrendan ez dagoela dioena.

\* Azken 5 urteotan ondasunik eskualdatu ez izanari buruz Ogasun Ordezkaritzak emandako ziurtagiria.

\* Ogasun Ordezkaritzak emandako ondasunei buruzko ziurtagiria.

— Medikuari txostena, non-eta zehaztuko da ez duela gaixotasun infekzio-kutsakorrik, ez eta elkarbizitza normala aldatu dezakeen gorabehera psikiatrikorik.

— Bizitza autonomoa aurrera eramateko Ezintasunaren balorazioa (indarrean dagoen eskala), Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuko zerbitzu medikoek egingo dutena.

— Udalak interesgarritzat jotzen duen beste edozein agiri.

Zegamako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako saila arduratuko da itxoin eta erreserba zerrendak egiteaz, hura onartu ostean gertatzen diren hutsuneak hornitzeko.

25. artikulua. Onartzeko baremoa.

1. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioarekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kasua baloratuko du, onarpen Baremoaren laguntzaz.

2. Kanpora geratuko dira Sakontzen eskalan edo indarrean dagoen eskalan 3tik gora dauden kasuak, batzordearen erabakia salbu.
3. Eskaerak aztertu eta baloratzea Udal gizarte langileak egingo du, onarpen baremoa ezarriz eta Gobernu Batzordeak erabakiko du onartu edo ez.
4. Egoiliar izateak ez du etxebizitzari buruzko eskubiderik ematen, eta bai lojamendura, orokorrean, eta, espeziifikoki, Udalak ematen duenera, egoiliarren behar eta banaketaren arabera, arrazoi berdinengatik ondoren aldatu ahal izango delarik.
5. Herritik kanpokoak sartu ahal izango dira, baina beti araudi honetako 5-2 artikuluan ezarritako lehentasun ordena izango da kontuan nahiz eta kanpokoek puntu gehiago izan baremoan.
6. Hala ere, kasu bakoitza Gizarte zerbitzuetako Batzordeak aztertuko du Gobernu Batzordeari proposamena luzatuz.

26. artikulua. Etxebizitza babestura sartzea.

1. Behin eskatzaileak jasotzen duenean plaza dagoen jakinarazpena eta onarpen agiria jaso ondoren, 8 eguneko epea izango du etxebizitza okupatzeko. Epe horretan ez badu plaza okupatzen, plaza erreserban jarriko da ondorio guztietarako, 5 egun gehiago eta hortik aurrera plaza erreserbatzeko eskubidea galdu ahalko du.
2. Etxebizitza babestuan sartu eta gero, proba gisara 60 egunean egongo da izangaia han. Aldi hori igarotakoan, hara egokitzeko ezintasunen bat erakusten duten gorabehera pertsonal edo aldaera psiko-fisikorik ikusi ezean, gizarte laguntzaileak egindako txostenaren ostean, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak erabakiko du hura sartzea behin betikotasunez.

## V. TITULUA

### ESKUMENAK BANATZEA

27. artikulua. Eskumenak banatzea.

1. Ibarako Udaleko Gizarte Zerbitzuko sailak eskumen hauek izango ditu:

— Erabiltzaileari informazio eta aholkularitza ematea, etxebizitza babestuen programaren eduki, laguntza eta sarrera baldintzei buruz.

— Eskaera jasotzea eta espedienteko datuak betetzea (gizarte-familiakoak, ekonomikoak, besteak).

— Banakako atenzioa eta beste egoitza alternatiba edo erantzun batera joateko gestioa, egoiliarrek edozein arrazoiengatik eskatzen duenean: Integraziorik ez, elbarri paratzea, e.a.

— Sarrera baimena.

— Itxoin zerrendak antolatzea eta bete gabe dauden plazak hornitzea.

— Zehaztea, batetik, egonaldiaren hileko kostua eta, bestetik, esku hartzen duten alde biei ezar dakiekeen erregimen ekonomikoa.

— Urteko plaza-kostua zehaztea.

— Barne Araudia onartzea.

## 2. Gizarte Politikarako Departamentuak (Gipuzkoako Foru Aldundia):

— Balorazio medikoa, fisikoa, psikikoa eta funtzionala, eguneroko ekintzak garatzeko gaitasun egoera zehazteko, bere mediku taldearen bitartez.

— Udaletako profesionalei laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea.

### 28. artikulua. Ordenantzako arau-haustekak.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak jakinez gero eta dagokionean frogatuz gero ez dela egia eskatzaileak edo haren familiakideek alegatu dutena Araudi honetan eskatzen diren gorabeheri buruz, berehala deuseztatuko du erabilera izaera, eta eskatzaileari jakinaraziko dio, eta ordaindutako diru kopuruak erreklamatu dizkio eta gertaera salatuko du jurisdikzio penalean, baldin eta arau haustean dolozko portaerarik ikusiz gero.

## 1. ERANSKINA

### EGOILIARRAK HAUTATZEKO BAREMOA

Egoiliar izan nahi duten pertsonen egoeraren 5 atal baloratzen ditu baremoak.

— Egoera sozio-familiarra: Gehienez 15.

— Ezintasun egoera: Gehienez 3.

— Etxebizitzaren egoera: Gehienez 15.

— Egoera ekonomikoa: Gehienez 10.

— Beste egoerak: Gehienez 3.

Gehieneko totala: 46 puntu.

Egoera sozio-familiarra, VII Eranskinean jasoko dena.

Aldagai honetan eskatzaileak eta/edo bikoteak famili ingurunean eta gizartean duen egoera jasotzen da, bereziki azpimarratzen direlarik babesik gabeko egoerak:

15 puntu:

— Bakarrik bizitzea, herrian familiartekorik gabe, gizarte aislamendu edo utzikeria egoeran, eta etxebizitza alternatiba egokirik gabe.

— Tratu txar fisiko edo psikikoak dituen adineko pertsona edo erabat abandonatutakoa

12 puntu:

Seme-alaba, edo besteekin bizitzea edo etxebizitza konpartitzea, gatazka larri eta jarraitua egonik, metaketa egoeran eta elkarbizitzari buruzko narriadurarekin.

9 puntu:

Bakarrik bizitzea, baliabide sozial egokirik gabe eta norbere aislamendu edo utzikeriarako arriskuarekin.

6 puntu:

Denboraldi baterako familiartekoen edo beste batzuek jasoak egotea edo seme-alaben etxeetan txandaka ibiltzea, tentsio familiar egoerak daudelarik.

3 puntu:

Famili antolaketan parte hartze txikia duen adineko pertsona eta pertsonalki garatzeko eragozpenak

dituena.

0 puntu:

Bere ohiko etxebizitzan bizi izatea, bakarrik edo familiartekoekin, arazo aipagarriarik gabe, gizarte baliabide egokiak dituztelarik, egokitzen hartzen diren baldintzetan.

Ezintasun egoera:

3 puntu:

Etxebizitzaren egoera:

Aldagai honetan eskatzailea bizi den etxebizitzaren bizigarritasuna baloratuko da, bertako ekipamenduaren baldintzak eta egokitasuna, etxebizitza partikular, zentro edo beste edonolako egoitza izan.

15 puntu:

— Etxebizitza utzi arazi egin diote eta/edo etxebizitza halaberrez utzi behar du.

— Utzi egin behar duen egoitza batean bizi da, edota gutxieneko baldintzak bakarrik dituen ostatu batean, edota epe motzean bizitzen jarraitzeko garantiarik ez duen partikular baten etxebizitzan.

12 puntu:

Etxebizitza bizitzeko egoera oso eskasean dago ekipamendu eta/edo egiturari dagokionez eta herri gunetik urruti, herri gunera joateko eta/edo adineko pertsona batek behar dituen oinarrizko zerbitzuak izateko zailtasunak dituelarik.

9 puntu:

Bizitzeko egoera oso eskasean dago etxebizitza, eta barne eta kanpoko oztopo arkitektonikoak dituenaz, oztopo handiak ditu pertsonalki eta sozialki bizitzeko.

6 puntu:

Etxebizitza egokia da ekipamendu eta egiturari dagokionez, baina herri gunetik urrunduta dago, herri gunera joateko eta/edo adineko pertsona batek behar dituen oinarrizko zerbitzuak izateko zailtasunak dituelarik.

3 puntu:

Etxebizitza bertan bizitzeko egoera eskasean dago, ekipamendu batzuk (etxeke tresnak edo altzariak edo eduki beharreko tresneria, etab.) ez dituelako edo egitura egoera txarrean dagoelako, akats horiek konpon badaitezke ere.

0 puntu:

Etxebizitzak bertan bizitzeko baldintza egokiak eta zerbitzu guztiak ditu.

Egoera ekonomikoa:

Urte bakoitzerako onartutako Kotizatu Gabekoen Pentsioa hartzen da abiapuntutzat, eta bi taula ezartzen dira: A taula, pertsona bakarrentzat; B taula, bikoteentzat.

<i>A taula</i>	<i>Puntuak</i>
KGP arte	10
KGP x 1,5 arte	9
KGP x 2 arte	8

KGP x 2,5 arte	7
KGP x 3 arte	6
KGP x 3,5 arte	5
KGP x 4 arte	4
KGP x 4,5 arte	3
KGP x 5 arte	2
KGP x 5,5 arte	1
KGP x 5,5etik gora	0
<i>B taula</i>	<i>Puntuak</i>
KGP x 1,33 x arte	10
KGP x 1,33 x 1,5 arte	9
KGP x 1,33 x 2 arte	8
KGP x 1,33 x 2,5 arte	7
KGP x 1,33 x 3 arte	6
KGP x 1,33 x 3,5 arte	5
KGP x 1,33 x 4 arte	4
KGP x 1,33 x 4,5 arte	3
KGP x 1,33 x 5 arte	2
KGP x 1,33 x 5,5 arte	1
KGP x 1,33 x 5,5etik gora	0

Beste egoera batzuk:

Atal honetan, profesionalak garrantzitsutzat jo eta aurreko ataletan jasotzen ez diren beste egoera batzuk baloratu daitezke. Gehienez 3 puntu.

## 2. ERANSKINA

### ERABILTZAILAILEEN ELKARBIZITZA ARAUAK

1. Jaikitzeke ordua librea izango da, baina ez gosaltzeko ordua baino beranduago. Erabiltzailearen bat ondoezik badago, gaixorik dagoelako, arduradunari ohartaraziko dio, zaindu dezaten.
2. Egoiliar bakoitzak, beti errespetatu behar ditu bizikideen logelak, haien baimenik gabe sartu gabe eta haiek kanpoan daudela inoiz sartu gabe, eta hori hutsegite oso larritzat joko da.
3. Erabiltzaileek arreta berezia jarriko dute gertueneko familiartekoen etxebizitza eta telefono aldaketa jakinarazteko orduan.
4. Ezin dira atera, besteei enbarazu egin diezaiekeen soinurik, batez ere atsedean orduetan.
5. Ez garbitu eta ez zabaldu arroparik logeletan, ez eta janaririk gorde edo prestatu ere.
6. Ez erabili logeletan aparatu elektrikorik, gasezkorik edo ito edo sutea izateko arriskua dakarren beste

ezer.

7. Balio ez duten gauzak uzteko tokiak egongo dira hartarako. Ez bota ezer leihotik edo komuneko tazatik.
8. Pertsona arduradunari beti jakinaraztea aparatuen funtzionamenduan edo altzarietan nabaritutako anomalia oro, hainbat lasterren konpontzeko.
9. Erabiltzaileek askatasun osoa dute etxebizitzatik irten eta sartzeko, eta horretarako giltza bat emango zaio erabiltzaile bakoitzari. Eskatzen da, irteten duen bakoitzean arduradunari jakinaraztea nora doan eta, - gutxi gorabehera, zenbat denbora egingo duen kanpoan.
10. Nahi dutenean etxebizitzatik kanpo otorduak egin ahal izango dituzte, arduradunari gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazten badiote.
11. Era berean, jaiak, asteburuak, oporrak, beren familiarterako eta lagunekin igaro ahal izango dituzte, arduradunari gutxienez 24 ordu lehenago jakinarazten badiote, eta beti esango dute norekin eta nora doazen. Hortik kanpoko egonaldiak ez dira urtean 45 egun baino gehiago izango.
12. Gainontzeko erabiltzaileei, langileei, enbarazua eragin diezaieketen eztabaidak ekiditea.
13. Bisitei dagokienean, ez da ordutegi zehatzik egongo, eta egoiliarren sen onaren baitan utziko da, beren bisitei gomenda diezaien jatorduetan eta atsedean orduetan etortzea ekidin dezatela.
14. Jatorduetan, menu orokorrari egokituko zaizkie. Mediku diagnostikoaren ondorioz bakarrik egingo zaie diagnostiko horren araberako janari erregimen berezia.
15. Behar dituen osasun zerbitzuak mediku titularrak eta praktikanteak bakarrik egingo dituzte, eta larrialdietarako zerbitzuak, Goierrin ezarritakoak izango dituzte.
16. Erabiltzaileak ospitalean sartuz gero, familiarterako arduratuko dira osasun laguntza, arreta, ospitaleko bisitak, gaixoa zaintzea, e.a. etaz buruz.
17. Erabiltzaileek ekarritako altzarien onarpena aztertuko da.
18. Erabiltzaileek Babesturiko Etxebizitzaren zerbitzuak errespetatu eta erabiliko dituzte, hots, logelak, bainugelak, jangela eta egongela, e.a.

Arau hauetan aurreikusten ez dena, Udalak, Gizarte Ongizate Batzordearen bitartez, ezartzen duenaren arabera izango da.

### 3. ERANSKINA

#### JANTZIAK

Jantzi markatuak: Gutxienekoak.

— Gizonezkoak:

6 musuzapi.

6 barruko arropa oso.

4 galtzerdi pare.

1 bata eta zapatila.

4 alkandora.

4 galtza.

2 jertse.

Berokia.

Garbiketarako poltsa, behar den guztiarekin.

— Emakumezkoak:

6 musuzapi.

6 barruko arropa oso.

4 galtzerdi edo panti pare.

1 bata eta zapatilak.

4 blusa eta 4 gona edo, bestela.

4 soineko.

2 jertse edo txaketa.

Berokia.

Garbiketarako poltsa, behar den guztiarekin.

#### 4. ERANSKINA

Ibarran, 200....ko .....aren .....(e)an.

#### BILDURIK

Batetik,....., Ibarako Udaleko Alkatea Lehendakaria.

Bestetik ..... jaun/andrea.

#### AZALTZEN DUTE

*Lehena.* Ibarran Erabilera Anitzeko Landa Eremu barruan dagoen Etxebizitza Babestua kudeatzen du Ibarrako Udalak.

*Bigarrena.* ..... jaun/andreak Etxebizitza Babestu horretan sartzeko eskaera aurkeztu zuen Ibarrako Udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez; eskaera hori onartu du Ibarrako Udaltzarrak .....(e)an egindako bilkuran, Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen txostena onartu eta gero.

Horregatik guztiagatik, alde biek

#### ERABAKI DUTE

*Lehena.* Etxebizitza Babestuko zenbakia duen logela era konpartituan erabiltzeko baimena ematen dio Ibarrako Udalak ..... jaun/andreari, hurrengo artikuluetan aipatzen diren baldintzetan.

*Bigarrena.* Kontratu honetako zati gisa babespeko etxebizitzaren funtzionamendu araudia itsatsi da eta bere Eranskinak, udalak onartuak eta .....jn/and. ak ezagutu eta onartzen dituela dio.

*Hirugarrena.* Etxebizitzaren oinarrizko erabilera baldintzak, funtzionamendu araudiak dioena baztertu gabe, honela egingo da:

— Ematen dioten bakarkako edo bi lagunentzako logelaren erabilera (biko logela).

— Etxebizitzan denontzat diren gainerako gelak era konpartituan erabiltzea.

*Hirugarrena.* Etxebizitza guztiz ekipatua eta erabiltzeko egoera ezin hobean egongo da, eta ez dago zertan ekarri altzaririk

*Laugarrena.* Ibarako Udalak zerbitzu hauek ematea bermatuko du:

— Eguneko bazkaria eta afaria.

— Etxeko lanak egiteko, etxeko laguntza zerbitzua.

— Jai egunetan, gutxieneko zerbitzuak emango dira.

*Bosgarrena.* Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak:

5.1. Etxebizitza babestuaren erabiltzailea beharturik dago, etxebizitzan, eguneroko lanak egitera, eta hango instalazioak egoera onean mantentzera.

5.2. Erabiltzaileak, beharrezkotzat jotzen duen izaera pertsonaleko gauzak jarri ditzake, nahi izanez gero.

5.3. Beste eskubide hauek ere izango dituzte:

- a) Etxebizitzaren erabileraz gozatzeko.
- b) Eguneroko lanak egiteko, behar duten profesionalaren laguntza jasotzea.
- c) Etxebizitzan bisitak izateko.
- d) Etxebizitzaren eta komunitateko bizitzaren jardunean parte hartzeko, ezartzen diren ordezkaritza organoen bidez.
- e) Egunez Landa Eremuko erabilera anitzeko zerbitzuez eta instalazioez gozatzea kasua bada, hortik aparte geratzen direlarik zuzeneko laguntza zerbitzuak.

5.4. Babesturiko etxebizitzako erabiltzaileek betebeharrak izango dituzte:

- a) Garaiz ordaintzea Udalbatzarrak, egonaldiaren truke, urte horretarako finkatu duen diru kopurua. Hori dela eta, erabiltzailea beharturik dago bere diru sarreretan edozein aldaketa jakinaraztera.
- b) Behar diren elkarbizitza arauak errespetatuko dituzte erabiltzaileek; elkarrekiko errespetuan eta tolerantzian, elkarlaguntzan eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako portaera izango dute.
- c) Bere logelako eguneroko garbiketa lanak egingo dituzte, ahal duten neurrian.
- d) Etxebizitza eta barneko ekipamendua zainduko dituzte, eta ohiko erabileraren ondorioz izan ez eta gertatzen diren kalteei erantzunango diete.
- e) Arduradunari jakinarazi behar diote etxebizitzatik alde egin behar dutela edo alde egiteko asmoa dutela, gutxienez hilabete bat lehenago, behin betiko bada edo aldi baterako bada.
- f) Etxebizitza Babestuko zerbitzuak errespetatu eta erabiliko dituzte erabiltzaileek, hala nola, logelak, bainugelak, jangela, e.a.
- g) Bere logelan sartzen utziko diete etxeko langileari eta Udal gizarte langileari.

*Seigarrena.* Etxebizitza babestuen erabiltzaile izaera arrazoi hauengatik galtzen da:

— Bere jokoarekin, intentzio txarrez etxebizitzako elkarbizitza oztopatzen duenean, beste erabiltzaileen edo/eta langileen eskubideak errespetatzen ez dituenean edo/eta etxebizitzan sartzeko eskaera aurkezten denean nahita datu faltsuak ematen dituenean.



— Etxebizitzatik denboraldi luzean edo/eta tarteka, arrazoitu gabe faltatzen denean, elkarbizitza araudiko 7. puntuan aipatzen diren 45 egunak izan ezik.

— Erabiltzaileak hala nahi duelako.

— Elbarri dagoelako edo laguntza espezifikoa behar duelako, eta hala izanez gero, oinarrizko Gizarte Zerbitzuek, Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu medikoen balorazioa egin eta gero eta dagokion gaitasun/ezintasun taularen bidez, txostena egingo dute, Gizarte Zerbitzuetako Ongizate Batzordean onartzeko eta Ibarako Udalaren udalbatzarrean berresteko.

— Egoiliarren ezintasun balorazioa onartu ondoren, baja emango zaio etxebizitzan eta Udaleko Gizarte Zerbitzuei dagokie behar diren tramiteak egitea 3. Adineko Egoitza batean sartzeko.

— Hileroko kuota ekonomikoa ordaintzen ez duelako.

— Eskaera sortarazi zuten arrazoiak aldatu edo konpondu egin direlako.

*Zazpigarrena.* Ibarako Udalari dagokio kontratu honetan agertzen diren xedapenak betearazi eta interpretatzeko ahalmen guztiak erabiltzea, eta horien arabera hartutako erabakiak, bidezkoa bada, epaimahaien aurrean gainbegiratu ahal izango dira.

Agiri hau irakurri ondoren eta ados daudela egiaztatzeko, kontratu hau sinatzen dute bi aldeek, ale bitan eta eragin bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Ibarako Udalaren izenean, Alkatea.

Izp.: .....

Erabiltzailea:

Izp.: .....